

4 GAIA URA ETA PAISAIA



URAREN EGOERAK

| | | |
|--|---|---|
| Solido-egoera | Likido egoera | Gas egoera |
| Ura solido-egoeran dagoenean, izotza, elurra eta txingorra dira. | Ura likido egoeran dagoenean, ura edateko, garbitzeko edo ureztatzeko erabiltzen dugu. Biltzen dugun ontziaren forma hartzen du | Ur lurruna da. Airean dagoen gas ikusezina. |



Ura egoera batetik beste batera igarotzen denean, egoera-aldaketak gertatzen dira. Ura berotzean edo hoztean gertatzen dira.



+



=



URTZEA

IZOTZA BEROTZEN denean, UR LIKIDO bihurtzen da.



+



=



SOLIDOTZEA

Ura HOZTEN denean, IZOTZ bihurtzen da.



+



=



LURRUNTZEA

Ura BEROTZEN denean, LURRUNA bihurtzen Da.



+




=



KONDENTSATZEA

UR-LURRUNA HOZTEN denean, URA bihurtzen da.

URAREN ZIKLOA




1 Lurrundu: Eguzkiak ura berotzean lurrin bilakatzen da eta gora joaten da.

2 Kondentsatu: Goian lurrin tanta asko bildu eta hozten direnean **hodeiak** sortzen dira.

3 Solidotu: Hodeietako ur tanta txiki horiek elkartu eta lurrera erortzen dira kazkabar edo elur moduan.

4 Urtu: Beroaren eraginez gorputz solido bat (elurra, izotza...) ur bihurtu.

URAREN ZIKLOA



Nola zaindu ahal dugu ura?

- Dakizun moduan eta aurreko gaietan aipatu dugun arabera, ura ezinbestekoa da bizitzeko. Izaki bizidun guztiok behar dugu. Ura lurrean beti egoteko, hona hemen jarraitu behar dituzun bi gomendio ematen dizkizugu:
- **Ura aurreztea:** bakarrik erabili behar da, behar dugun ura. Ez gutxiago, ez gehiago. Ez dugu ura alferrik galdu behar. Hortzak garbitzen ditugunean, txorrota itxi behar dugu edo bainatu beharrean, dutxatzea.
- **Ura ez kutsatzea:** Ura ez kutsatzeko, ez ditugu hondakinak uretara bota behar.


**GOGOAN IZAN
RECUERDA**
ur txorrota itxi erabili ondoren
cierra el grifo despues de utilizarlo



**URA DENONA DA
ZAINDU DEZAGUN**
EL AGUA ES DE TODOS
CUIDÉMOSLA



**NAHIKO DA
ES SUFICIENTE**



**URA DENONA DA
ZAINDU DEZAGUN**
EL AGUA ES DE TODOS
CUIDÉMOSLA

PAISAIAREN ELEMENTUAK

MENDIAK

Lurralde garaiak dira eta aldapatsuak.



MENDILERROA

Lerroan dauden mendiak dira.



MENDIKATEA

Elkarren ondoan dauden mendilerroek osatzen dute.



MUINOA
Mendi baxuak dira.



HARANA
Mendiz inguratutako eremuak dira.



ORDOKIA
Eremu laua, zabala eta altitude handikoa.



LAUTADA
Lur zati lauak dira.



SAKONUNEA
Mendiz inguraturik, horiek baino beherago aurkitzen den lur-eremua



HONDARTZA

Itsasoraino sartzen
diren lur malda
txikiak.



ITSASLABARRA

Itsasertzeko leku
harritsu eta altuak
dira.




GOLKOA

Lurrean sartzen den
itsasoa.



BADIA

Kostan itsasoa
sartzen denean



LURMUTURRA

Itsasora sartzen den
lur-zatia.



PENINTSULA

Urez inguraturik
dagoen lur-eremua
zati bat ezik.



ISTMOA

Penintsula
kontinentearekin
lotzen duen lur zatia
da.



UHARTEA

Urez inguratutako lur
zattia da.



LAKUA/AINTZIRA

Lurrez inguratuta
dagoen ur gezazko
eremu bat da.



IBAIA

Itsasora edo beste
ibaia batera joaten
diren ur korrenteak.



EDUKI DIGITALAK

- Paisaia jarduera [\(LINK\)](#)



- Uraren zikloa [\(LINK\)](#)



- Nola aurreztu ahal dugu ura? [\(LINK\)](#)

